

Belaunaldi baten bidea

‘ON THE ROAD’ ENKANTEAN. Jack Kerouac eta ‘beat’ mugimendua ezagun egin zituen nobelaren jatorrizko eskuizkribua salgai jarriko dute asteartean

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Beat mugimenduari buruz hitz egiteko eskatzen ziotenean, bera arrotz bakarti zoro katoliko mistiko bat zela erantzuten zuen Jack Kerouacek. *On the road* argitaratu zenez geroztik, berari egokitu zitzaion haustura lelotzat zuen belaunaldiaren ordezkari izatea. Eta mugimendu haren zurrunbiloak irentsita hil zen Kerouac 1969an, alkoholak jota. Orain, nobela hura idazten amaitu zuenetik 50 urte bete direnean, Kerouac albiste iturri da berriro. Hurrengo asteartean Christie's etxeak egingo duen enkanteak du horren *errua*. Bertan, *On the road* egiteko erabili zuen 40 metroko paper-biribilkia salgai jarriko dute, eta, hala-koetan ohi denez, eztabaida handia piztu da idazlearen jarraitzaile eta ondorengoen artean. Lehenengoen ustez, eskuizkribuak New Yorkeko liburutegi nazionalaren esku jarraitu beharko luke. Kerouacen oinordekoek, baina, salmentarekin aspaldiko zorrak kitatu nahi dituzte. Adituek diotenez, *On the road*-ek erraz gaudituko du milioi dolarreko prezioa.

Jean-Louis Kerouac, Jack ezizenez, 1922an jaio zen, Lowell (Massachusetts). Gurasoak jatorri frantziar-kanadarrekoak zirenez, Jackek ez zuen ingelesa ikasi sei urte bete zituen arte. Idazleak gaztetatik futbolerako dohain berezia erakutsi zuen, eta horrek Columbia unibertsitateko ateak ireki zizkion. Baina taldeko entrenatzailearekin izan zituen liskarrek kirolek behin betiko urrundu zuten. Horrek ez zuen askorik atsekabetu, handik aurrera hainbeste miresten zituen He-

PAKO ARISTI

Idazlea

«Kerouacen bizitzak sinesgarri egin zuen nobela, eta liburu gutxitan aurkitzen den balioa du»


MIKEL HDEZ. ABAITUA

Idazlea

«Bizitzaren aurrean erakutsi zuten jarreragatik egin ziren garrantzitsu beatnik-ak»

mingway eta Jack London bezala, idaztera eta bidaiatzera emana biziko baitzen. Bakarrik lehenik, eta Neal Cassidy, William Burroughs eta Allen Ginsbergekin gerora, Kerouacek Estatu Batuak alde batetik bestera zeharkatu zituen. Abenturarako zaletasunak ez ezik, idazle bihurtzeko nahiak ere batzen zituen. Artifizialtasunik gabeko idazkeran sinesten zuten, baina literatur «natural» hori lortzearen mota guztietako drogekin esperimentatu zuten. Era berean, gizarte arauen kontra askatasun pertsonalaren aldeko apustua egin zuten. Inguruan zeukatenarekin ez zeuden batera gustura, eta aldaketa posible zen.

Cassidy eta bera Mexikora ino eraman zituen bidaia batean oinarriturik idatzi zuen Kerouacek, hain zuzen, *On the road*. Hiru aste, ehunka kafe kikara eta 40 metroko paper-biribilki bat behar izan zituen nobela osatzeko, eta sei urte behar izan ziren argitaletxe batek *On the*



EGUNKARIA
Jack Kerouac (1922-1969).


road kaleratzea erabaki zuen arte. Baina handik aurrera dena aldatu egin zen: *beat* mugimenduaren bataioa izan zen.

Indarrean dirauen estiloa

«Kerouacek bere bizitzarekin sinesgarritasuna eman zion liburuari. Idazleek, normalean, bizitza apalak, arruntak eta grisak daramatzate, eta liburuak haien talentuaren edo imajinarioaren emaitza izaten dira. *On*

the road, berriz, bizitzarekin bete-betea loturik dagoen liburu da, eta horrek liburu askotan aurkitzen ez den balioa ematen dio». Pako Aristik aspaldi irakurri zuen Kerouacen nobela, eta, ordutik hona hainbatetan berrirakurri duen arren, *beat* mugimenduko ideiek gaurkotatzen izaten jarraitzen dute la uste du. Urrestillako idazlearentzat, Kerouacek landu zuen estiloa arras interesgarria da:

NOBELA



Anonimotasunetik osperaino jauzia, kamioi batean

1957ko irailaren 4ko gauerdian, Kerouac eta garai hartan harekin bizi zen Joyce Johnson *The New York Times*-en kamioiaren zain zeuden. Editoreak idazleari esan zionez, zenbaki hartan etorri behar zuen Gilbert Millsteinek *On the road*-en gainean eginiko kritikak. Hurrengo egunean, telefonoa jo eta jo aritu zen. Atzean geratu zen idazlea argitaletxez argitaletxe eraman zuen sei urteko erromaldia: Jack Kerouac idazle ezaguna zen. Urte batzuk geroago, ospea nolakoa zen galdetu zion lagun batek. «Haizeak Bleecker kaletik behera daraman egunkari zaharraren modukoa da», erantzun zion Kerouacek.

«Gero jakin dugu *On the road* zazpi bat aldiz berridatzi zuela, baina, hala ere, badu inprobisaturiko liburuaren tankera hori».

Mikel Hernandez Abaituak duela 20 urte izan zuen *On the road*-en berri, eta, interesatzen zaion literaturatik urrun bada ere, *beat*-ak interesgarritzat jotzen ditu. «Beren literaturagatik baino gehiago, bizitzaren aurrean hartu zuten jarreragatik dira garrantzitsu *beat*-ak».

ANALISIA

■ Juan Luis Zabala

Egia esan, ez naiz oroitzen zer arraio egin zuten Dean Moriartyk eta Sal Paradisek beren bidaia mitiko haietan. Egia esan, bi pertsonaia horien izenak oroitzeko ere liburuaren atzealdeko orrialdeari begiratu behar izan diot. Egia esan —eta hau gogorragoa da, *my friend*, gogorragoa denez—, inoiz *On the road* goraiatzaren entzun dudana jende ezagun eta *erreferentzialaren* artean Ramoncin da une honetan burura etortzen zaizkidan bakarretako bat. Egia esan, ez zait iruditzen ondorengo urteetako euskal literatur itzulpenen inongo zerrendatan agertuko denik liburu hau, ez orain eta ez ondorengo urteetan, euskal literatur itzultzaile estandarren gus-

tuekin bat egiteko modukoa ez izaki, ez nuke, egia esan, oso ondo asmatuko motiboak azaltzen.

Baina nik, egia esan, maitasun handia diot liburu honi.

Oso zaila da gaur egun askatasunaz hitz egitea, dela indibiduala dela kolektiboa. Eta askatasuna gatzetasunarekin, poltsikoko diruarekin, auto batekin eta errepide luze eta amaigabe batekin lotzea lapiko samarra izatea ere bada, noski.

‘Road to ruin’

Baina kontu horiek guztiak ez ziren hain topikoak Jack Kerouac *On the road* idazteko eseri zen garaian. Mundua eta bizitza esperimentugune harturik, mugarik gabe bidaiatzen dute hara eta hona Sal Paradisek eta Dean Moriartyk *On the road*-en, mugagabetasun horixe ideologia bakar. Inork zapaldu gabeko lurraldean sartzearen zirrara nabari zaie pertsonaiei, eta zirrara hori bereganatzen du irakurleak ere irakurketaren abenturan.

Hemen bertsolarien mundua Basarriren eskolara errenditua zen garaian, EEBBetan Txiritaren garaiko bertsolarien zabaltasuna eskuratu baitzuten Beat Belaunaldiko kideek, Hernaniko Beat Handia ezagutu gabe.

Santutasuna aipatzen du Jack Kerouacek *On the road*-en, Jean Genetek lan askotan bezala. Ez da kasualitatea. Elkarren osagarri dira santutasun biak. Kanporantzkoa da Kerouacena, ganbila; barrurantzkoa Genetena, ahurra. Esperimentazio mistikoak dira biak, erlijioa, literatura sakona, baliabideen distiran baino gehiago barne-muinen urraketan saiatu eta gailendua, alde aurretik hondamendiraino frakasatua.